

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 401/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, 2009ko apirilaren 23koa, Europako Ingurumen Agentziari eta Ingurumen Informazio eta Ikuskapeneko Europako Sareari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N° 401/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, relativo a la Agencia Europea del Medio Ambiente y a la Red Europea de Información y de Observación sobre el Medio Ambiente» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 126/13 de 21/5/2009)

401/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 126/13, 2009/5/21ekoa)

401/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2009ko apirilaren 23koa,

Europako Ingurumen Agentziari eta Ingurumen Informazio eta Ikuskapeneko Europako Sareari buruzkoa

(bertsio kodetua)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatua eta, bereziki, haren 175. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin zaio,

Eta Tratatuko 251. artikulua [2] araututako prozedurarekin bat,

Hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 1210/90/EE Erregelamendua, 1990eko maiatzaren 7koa, Europako Ingurumen Agentzia eta Ingurumen Informazio eta Ikuskapeneko Europako Sarea sortzeko [3], hainbat alditan aldatu da [4], eta funtsean aldatu ere. Testuaren arrazionaltasuna eta argitasuna handitze aldera, komeni da Erregelamendu hau kodetzea.

(2) Tratuak ingurumenari dagokion Erkidegoaren politika bat lantzea eta ezartzea aurreikusten du, eta politika hori bideratzeko helburuak eta printzipioak adierazten ditu.

(3) Ingurumena babesteko eskakizunek Erkidegoko gainerako politiken osagai izan behar dute.

(4) Tratuaren 174. artikuluarri jarraiki, Erkidegoak, ingurumenarekin zerikusia duten ekintzak gauzatzean, kontuan izan behar ditu eskuragarri dituen datu zientifikoak eta teknikoak.

(5) Ingurumenari buruzko Europa mailako datuen bilketa, tratamendua eta azterketa egitea ezinbestekoa da informazio objektiboa, sinesgarria eta alderagarria lortzeko, eta horrek aukera emango die estatu kideei ingurumena babesteko funtsezko neurriak hartzeko, neurri horien aplikazioa ebaluatzeko eta hiritarrek ingurumenari dagokionez egiten diren ekintzei buruzko informazioa jasoko dutela bermatzeko.

(6) Erkidegoan eta estatu kideetan badira informazio eta zerbitzu horiek eskaintzen dituzten erakundeak.

(7) Erakunde horiek izan behar dute Ingurumen Informazio eta Ikuskapeneko Europako Sarearen oinarri, eta sare hori Europako Ingurumen Agentziak koordinatuko du.

(8) Tratatuko 255. artikulua arautzen du agiriak eskuratzeko eskubidea, eta eskubide hori erabiltzeko printzipioak eta muga orokorrak, berriz, arau honek ezarri ditu: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1049/2001/EE Erregelamendua, 2001eko maiatzaren 30ekoak, herritarrek Europako Parlamentuko, Kontseiluko eta Batzordeko agirietara izango duten sarbideari buruzkoak [5].

(9) Agentziak Erkidegoko gainerako egiturekin lankidetzan jardun behar du, Batzordeak ingurumenari buruzko Erkidegoko legeriaren erabateko aplikazioa berma dezan.

(10) Agentziaren estatutuak eta egiturak bat egin behar dute lortu nahi diren emaitzen objektibotasunarekin, eta aukera eman behar diote bere egitekoak erakunde nazionalekin eta nazioarteko erakundeekin lankidetzan betetzeko.

(11) Agentziak autonomia juridikoa izateak dakartzan onurak jasoko ditu, eta aldi berean, Erkidegoko eta estatu kideetako erakundeekin harreman estua izango du.

(12) Agentziak sarrera-aukera eman behar die beste estatu batzuei, baldin eta bat egiten badute Erkidegoak eta estatu kideek Agentziarentzat ezarri dituzten helburuekin, eta, betiere, estatu horien eta Erkidegoaren artean izenpetu daitezkeen hitzarmenen baitan.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

HONAKO ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

1. artikulua

1. Erregelamendu hau Europako Ingurumen Agentziari buruzkoa da (hemendik aurrera "Agentzia"), eta Ingurumen Informazio eta Ikuskapeneko Europako Sare bat ezartzea du helburu.

2. Agentziaren eta Ingurumen Informazio eta Ikuskapeneko Europako Sarearen helburu nagusia Erkidegoari eta Estatu kideei jarraian adieraziko diren hauek eskaintzea izango da; betiere, Tratatuan ezarritako ingurumenaren babeserako eta hobekuntzarako helburuak, horren ondoren egin diren Erkidegoko ekintza-programen helburuak eta garapen iraunkorrerako helburuak lortzeko:

a) Europa mailako informazio objektiboa, fidagarria eta alderagarria, ingurumena babesteko neurri egokiak hartzea, neurri horien aplikazioa ebaluatzea eta jendeari ingurumenaren egoerari buruzko informazio zuzena ematea ekarriko duena, eta hori lortzeko,

b) beharrezkoa den laguntza tekniko eta zientifikoa.

2. artikulua

1. artikuluan adierazitako helburua lortzeko, Agentziak egiteko hauek beteko ditu:

a) Estatu kideekin elkarlanean, 4. artikuluan aipatutako sarea osatu eta koordinatuko du. Horri dagokionez, Agentziaren ardura izango da datuak bildu, tratatu eta aztertzea, batez ere 3. artikuluan aipatzen diren gaiak dagokienez.

b) Ingurumenerako politika eraginkorrak eta egokiak egiteko behar duten informazio objektiboa emango die Erkidegoari eta estatu kideei; ildo horretatik, Batzordeari beharrezko duen informazioa emango dio ingurumenaren arloko jarduerak eta legeria zehaztu, prestatu eta ebaluatzeko.

c) Ingurumenerako neurrien kontrola egiten lagunduko du, txostenen derrigorrezko aurkezpenean parte hartuz (galdeketak egin, estatu kideen txostenak prozesatu, eta emaitzak zabaltzen), urte askotarako lan-programari jarraiki, eta informazioa koordinatzeko helburuarekin.

d) Estatu kideei aholkularitza eskainiko die, aldez aurretik hala eskatzen badute eta aholkularitza Agentziaren urteko lan-planarekin bat badator. Aholkularitza hori ingurumen-neurrien kontrol-sistemak garatzeari, sortzeari eta zabaltzeari buruzkoa izango da, eta jarduera horiek ez diete kalterik egingo artikulua honetan ezarritako gainerako funtzioei. Laguntza horren baitan, estatu kideek horrela eskatuz gero, adituek egindako ebaluazioak ere egin daitezke.

e) Ingurumenari buruzko datuak erregistratu, alderatu eta ebaluatuko ditu; kalitateari, sentsibilitateari eta Erkidegoko lurraldean ingurumenak jasaten duen presioari buruzko txostenak egingo ditu; ingurumenari buruzko datuen ebaluaziorako irizpide bateratuak emango ditu, estatu kide guztietan berdin aplikatu daitezkeen; eta ingurumenari buruzko dokumentazio-zentro bat izango du. Batzordeak informazio hori erabiliko du ingurumenaren esparruko Erkidegoko legeriaren aplikazioa bermatzeko.

f) Ingurumenari dagozkion Europa mailako datuen alderagarritasuna bermatuko du, eta beharrezko balitz, bide egokien bitartez, neurketa-moduen bateratzea sustatuko.

g) Ingurumenari buruzko Europako informazioak ingurumena zaintzeko nazioarteko programetan integratzea sustatuko du; hala nola, Nazio Batuen Erakundearen eta bere erakunde berezietan ezarritako programetan.

h) Bost urtez behin ingurumenaren egoerari, joerei eta etorkizunari buruzko txosten bat argitaratuko du, gai zehatzei buruzko urteko txosten adierazgarriei batera.

i) Ingurumenaren esparruan aurreikuspen-tekniken garapena eta aplikazioa bultzatuko du, prebentzio-neurriak garatu hartzeko.

j) Ingurumenari egindako kalteen kostua eta prebentzio-politiken eta ingurumena berreskuratzeko politiken kostua ebaluatzeko metodoen garapena bultzatuko du.

k) Ingurumenari egindako kalteak prebenitzeko edo kalte horiek gutxitzeko teknologiei buruzko informazioaren trukea bultzatuko du.

l) 15. artikuluan aipatzen diren erakundeekin eta programekin lankidetzan jardungo du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

m) Jendartean ingurumenari buruzko informazio fidagarri eta alderagarriaren hedapen zabala bermatuko du, batez ere ingurumenaren egoerari dagokiona, eta horretarako teknologia telematiko berrien erabilera sustatuko du.

n) Laguntza emango dio Batzordeari ingurumena ebaluatzeko metodoak eta jarduteak garatzeko informazioa trukatzeko garaian.

o) Batzordeari lagunduko dio ingurumenari buruzko ikerketen emaitzei buruzko informazioa zabaltzen, modu horretara politikak zehazten lagunduko baitu.

3. artikulua

1. Agentziaren jarduera-sektore nagusiek bere baitan bilduko dituzte, ahal den neurrian, ingurumenaren gaur egungo egoera eta etorkizuneko egoera deskribatzeko elementuak. Elementu horiek ikuspegi hauetatik landuko dira:

a) ingurumenaren kalitatea;

b) ingurumenak jasaten dituen presioak;

c) ingurumenaren sentsibilitatea;

eta puntu guzti horietan kontuan izan beharko da garapen iraunkorra.

2. Ingurumenaren esparruan Erkidegoak duen politikan aplikatzeko zuzenean erabil daitekeen informazioa emango du Agentziak.

Lehentasuna emango zaie jarduera-sektore hauei:

a) airearen kalitatea eta isuri atmosferikoak;

b) uraren kalitatea, kutsatzaileak eta baliabide hidrikoak;

c) lurraren, faunaren, floraren eta biotopoen egoera;

d) lurraren eta baliabide naturalen erabilera;

e) hondakinen kudeaketa;

f) soinu-isuriak;

g) ingurumenerako arriskutsuak diren substantzia kimikoak;

h) itsasertzaren eta itsasoaren babesa.

Modu berezian landuko dira mugez haraindiko fenomenoak, nazio askotan eragina dutenak, eta mundu mailakoak.

Horrez gain, ikuspegi sozioekonomikoa ere kontuan izango da.

3. Agentziak informazioa truka dezake beste erakundeekin, besteak beste ingurumenaren esparruko legeria aplikatu eta betetzeko Europako Sarearekin (IMPEL sarea).

Bere jarduerak gauzatzean, Agentziak kontuan izango du beste erakunde eta organismoek dagoeneko abian jarri dituzten jarduerak ez errepikatzea.

4. artikulua

1. Sarearen barruan izango dira:

a) informazio-sare nazionalak osatzen dituzten elementu nagusiak;

b) kontrol-zentro nazionalak;

c) zentro tematikoak.

2. Estatu kideek Agentziari jakinaraziko dizkiete ingurumenari buruzko informazioaren sare nazionalen ezaugarri nagusiak, bereziki 3. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren lehentasuneko esparruei dagozkienak. Horrez gain,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Agentziari lagun diezaiokeen edozein erakunderi buruzko informazioa emango diote, bere lurraldearentzat ahalik eta estaldura geografiko osoena bermatze aldera.

Beharrezkoa den kasuetan, estatu kideek lankidetzan jardungo dute Ingurumen Informazio eta Ikuskapeneko Europako Sarearekin, eta Agentziaren programa betez, nazio mailako datuak bildu, alderatu eta aztertuko dituzte.

Horrez gain, Estatu kideek bat egin ahal izango dute nazioarteko jardueretan lankidetzan aritzeko.

3. Estatu kideek "kontrolerako zentro nazional" bat izendatuko dute lehen aipatutako erakundeen eta bere lurraldeko erakundeen artean. Zentro horren egitekoa izango da Agentzia eta Sarea osatzen duten erakunde edo organismoak, baita 4. artikuluan aipatzen diren zentro tematikoak ere, koordinatzea eta horiei nazio-mailan eman beharreko informazioa ematea.

4. Halaber, 1994ko apirilaren 30a baino lehen, estatu kideek adierazi ahal izango dute zein diren interes bereziko gaitan Agentziarekin lankidetzan jardun dezaketen instituzioak edo beren lurraldean dauden bestelako erakundeak.

Adierazitako erakunde horiek Agentziarekin akordio batera iritsi behar dute, egiteko zehaztetan, gaiari dagokionez, Sareko erdigune modura jarduteko.

Zentro horiek Sarea osatzen duten gainerako erakundeekin lankidetzan jardungo dute.

5. 8. artikuluko 1. paragrafoan xedatzen den modura, administrazio-kontseiluko kideek izendatuko dituzte zentro tematikoak. Izendapen horrek ezingo du 8. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen den urte askotarako programa bakoitzak baino gehiago irau. Hala ere, izendapena berri ahal izango da.

6. Zentro tematikoek egiteko zehatzak ematea, 8. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen den Agentziaren urte askotarako programan aipatu beharko da.

7. Agentziak aldian-aldian berraztertuko ditu 2. paragrafoan aipatutako Sarearen elementuak, batez ere urte askotarako lan-programari dagokionez. Horrez gain, programa horietan administrazio-kontseiluak erabakitzen dituen aldaketak sartuko ditu, hala badagokio, estatu kideek egindako izendapen berriak kontuan hartuz.

5. artikulua

Agentziak 4. artikuluan aipatzen diren eta Sarea osatzen duten instituzioekin eta erakundeekin beharrezko diren akordioak, bereziki kontratuak, hitzartuko ditu, bereziki haien kargu utz ditzakeen lanak egiteko.

Bere lurretan dauden instituzioei eta erakundeei dagokienez, Estatu kide batek ezar dezake Agentziarekin egin beharreko akordio horiek kontrolerako zentro nazionalarekin bat etorri behar dutela.

6. artikulua

1. 1049/2001/EE Erregelamendua Agentziaren esku dauden agirietan aplikatuko da.

2. Agentziak 1049/2001/EE Erregelamenduko 8. artikuluan xedatutakoa betetzeko hartutako erabakiak direla eta, erreklamazioak egin daitezke Europako Arartekoaren aurrean edo errekurtsioa jar daiteke Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegian, hurrenez hurren Tratutako 195. eta 230. artikuluetan aurreikusitako baldintzak betez.

7. artikulua

Agentziak izaera juridikoa izango du. Estatu kideetako bakoitzean legeria nazionalak pertsona juridikoei aitortzen dien gaitasun juridiko zabalena izango du.

8. artikulua

1. Agentziako administrazio-kontseilua estatu kide bakoitzeko ordezkari batek eta Batzordeko bi ordezkari osatuko dute. Horrez gain, dagozkion ezarpenei jarraiki, Agentzia osatzen duten gainerako estatuetakordezkari banak ere parte hartu ahal izango du administrazio-kontseilu horretan.

Horrez gain, Europako Parlamentuak administrazio-kontseiluko kide izango diren bi zientzialari ere izendatuko ditu; ingurumenaren babesari dagokionez adituak direnak. Aditu horiek aukeratzeko, kontuan izango da Agentziaren lanari egin diezaioketen ekarpen pertsonala.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Administrazio-kontseiluko kide bakoitzak ordezeko bat izan dezake.

2. Administrazio-kontseiluko kideek hiru urtez beren lehendakaria izango dena aukeratuko dute, eta kontseiluaren barne-araudia onartuko dute. Administrazio-kontseiluko kide bakoitzak boto bat emateko eskubidea izango du.

Administrazio-kontseiluak, hartzen dituen arauen arabera, erabaki administratiboak hartzeko mahai bat izendatu ahal izango du.

3. Administrazio-kontseiluaren erabakiak onartzeko kontseiluko kideen bi herenek baiezkoa eman beharko diote erabakiari.

4. Administrazio-kontseiluak 3. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren lehentasunezko sektoreetan oinarritutako urte askotarako lan-programa onartuko du. Horretarako 9. artikuluan aipatzen den zuzendari exekutiboak aurkeztutako egitasmo bat hartuko du abiapuntutzat, aldez aurretik 10. artikuluan aipatzen den Batzorde zientifikoari galdetu ondoren eta Batzordeak irizpen bat egin ondoren. Urtea askotarako lan-programak bere baitan bilduko du — erkidegoko urteko aurrekontuen prozedurari kalte egin gabe— urte horietarako aurrekontu-proposamenerako egitasmo bat.

5. Urtea askotarako programaren baitan administrazio-kontseiluak Agentziaren lan-programa onartuko du urtero, zuzendari exekutiboak aurkeztutako egitasmo bat abiapuntutzat hartuta, Batzorde zientifikoari galdetu ondoren eta Batzordearen irizpena ikusi ondoren. Prozedura hori betez, urte horretan zehar programak egokitu ahal izango dira.

6. Administrazio-kontseiluak Agentziaren jardueri buruzko urteko txostena onartuko du eta, gehienez ere ekainaren 15ean, Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari, Kontuen Auzitegiari eta estatu kideei helaraziko die.

7. Agentziak urtero bidaliko dio Aurrekontuen Agintaritzari ebaluaziorako prozeduren emaitzei buruzko informazio guztia.

9. artikulua

1. Administrazio-kontseiluak Batzordearen proposamenari jarraiki izendatutako Zuzendari exekutibo batek zuzenduko du Agentzia. Izendapen hori bost urterako izango da baina berriro ahal izango da.

Zuzendari exekutiboa Agentziaren lege-ordezkaria izango da.

Zuzendari exekutiboak ardura hauek izango ditu:

a) Administrazio-kontseiluak onartutako erabakiak eta programak zuzen egin eta betetzea.

b) Agentziaren ohiko administrazioa.

c) 12. eta 13. artikuluetan definitutako lanak egitea.

d) 2. artikuluko h) idatz-zatian adierazten diren txostenak prestatu eta argitaratzea.

e) Pertsonalari dagozkion gai guztietan, 8. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan aipatzen diren lan guztiak egitea.

Agentzian lan egingo duten zientzialariak kontratatzeko garaian, 10. artikuluan aurreikusitako Komite zientifikoaren irizpena eskatuko du.

2. Bere jardueren berri emango die administrazio-kontseiluko kideei.

10. artikulua

1. Administrazio-kontseiluak eta zuzendari exekutiboak hala eskatzen dutenean, Komite zientifiko baten laguntza izango dute Erregelamendu honetan aurreikusitako kasuei buruzko erabakiak hartzerakoan, eta Agentziaren jardueren izaera zientifikoari buruzko edozein erabaki hartzerakoan.

Komite zientifikoaren irizpenak argitara emango dira.

2. Komite zientifikoa ingurumenari dagozkion gaietan adituak diren pertsonak osatuko dute. Pertsona horiek lau urterako izendatuko ditu administrazio-kontseiluak eta izendapen hori beste lau urtez luza daiteke. Luzapen hori egin edo ez erabakitzerakoan, kontuan izango da Agentziari bere jarduera-esparruan laguntzeko, Komitean zein esparru zientifikotako pertsonak izatea komeni den. 8. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako barne-araudiak erregulatuko du bere funtzionamendua.

11. artikulua

1. Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean kontuan hartu beharko dira Agentziaren diru-sarrera eta gastu guztiak. Ekitaldi hori bat etorriko da urte naturalarekin eta Agentziaren aurrekontuaren barnean esleituko da.
2. Aurrekontuan diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka gorde beharko da.
3. Beste baliabide batzuen kalterik gabe, Agentziaren diru-sarrerak izango dira Erkidegoaren diru-laguntza bat, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrean esleitutakoa, eta emandako zerbitzuen ordainetan jasotako dirua.
4. Agentziaren gastuak izango dira langileen ordainsariak, administrazio- eta azpiegituretako gastuak, funtzionamendu-gastuak, eta Sareko kide diren instituzio eta erakundeekin eta gainerakoekin egindako kontratuei dagozkienak.

12. artikulua

1. Zuzendari exekutiboak egindako egitasmo bat oinarritzat hartuta, administrazio-kontseiluak hurrengo urtean Agentziak izango dituen diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena egingo du urtero. Administrazio-kontseiluak aurreikuspen hori igorriko dio Batzordeari, gehienez ere martxoaren 31n, eta bertan Agentziako langileentzako egitasmoa ere jakinaraziko dio.
 2. Batzordeak aurreikuspen hori Europako Parlamentuari eta Batzordeari (hemendik aurrera "Aurrekontuen Agintaritzak" izenez aipatuko ditugunak) igorriko die, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorraren aurreproiektuekin batera.
 3. Aurreikuspen horretan oinarrituta, Batzordeak Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorraren aurreproiektuan txertatuko ditu langileei eta diru-laguntzari dagozkion kopurua, eta Tratatu 272. artikuluan xedatutakoa betez, Aurrekontuen Agintaritzari aurkeztuko dio.
 4. Aurrekontuen Agintaritzak baimenduko ditu Agentziaren diru-laguntzari dagozkion kredituak.
- Aurrekontuen Agintaritzak ezarriko du Agentziako pertsonala.
5. Administrazio-kontseiluak aurrekontua onartuko du. Aurrekontu hori behin betikoa izango da Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorra onartzen denean. Beharrezkoa bada, onartutako aurrekontu orokorra kontuan hartuta egokituko da.
 6. Administrazio-kontseiluak aurrekontuan ondorio finantzario garrantzitsuak izan ditzakeen egitasmoren bat gauzatzeko asmoa badu, bereziki mugiezinekin zerikusia duten egitasmoak, hala nola, eraikuntzaren bat erostea edo alokatzea, ahal bezain lasterren jakinarazi beharko dio Aurrekontu Agintaritzari. Horrez gain, Batzordeari ere jakinaraziko dio.
- Aurrekontu Agintaritzako zatietako batek irizpen bat emateko asmoa duela ezagutaraziz gero, egitasmoa jakinarazten denetik sei asteko epean jakinaraziko dio administrazio-kontseiluari.

13. artikulua

1. Zuzendari exekutiboak betearaziko du Agentziaren aurrekontua.
2. Agentziako kontulariak gehienez ere ekitaldia amaitu eta hurrengo martxoaren 1a baino lehen jakinaraziko dizkio behin-behineko kontuak eta ekitaldiko aurrekontuen eta finantzen kudeaketari buruzko txostena Batzordeko kontulariari. Europako erkidegoen aurrekontu orokorrari aplikatzen zaion finantza-erregelamendua onartzeko [6] 2002ko ekainaren 25eko Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduaren 128. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Batzordeko kontulariak deszentralizatutako instituzio eta erakundeen behin-behineko kontuak bateratuko ditu.
3. Batzordeko kontulariak gehienez ere ekitaldia amaitu eta hurrengo martxoaren 31a baino lehen jakinaraziko dizkio Agentziaren behin-behineko kontuak eta ekitaldiko aurrekontuen eta finantzen kudeaketari buruzko txostena Kontuen Auzitegiari. Ekitaldiko aurrekontu- eta finantza-kudeaketari buruzko txostena Europako Parlamentura eta Kontseilura ere igorriko da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. Kontuen Auzitegiak egindako oharpenak jaso ondoren, 1605/2002 (EE, Euroatom) Erregelamenduaren 129. artikuluan xedatutakoa betez, zuzendari exekutiboak Agentziaren behin betiko kontuak egingo ditu eta bera izango da horien arduradun bakarra. Ondoren, administrazio-kontseiluari bidaliko dizkio, hark bere irizpena eman dezan.

5. Administrazio-kontseiluak Agentziaren behin betiko kontuei buruzko irizpen bat egingo du.

6. Zuzendari exekutiboak gehienez ere ekitaldia amaitu eta hurrengo uztailaren 1a baino lehen jakinaraziko dizkio behin betiko kontuak eta administrazio-kontseiluaren irizpena Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari eta Kontuen Auzitegiari.

7. Behin betiko kontuak publikoak izango dira.

8. Irailaren 30a baino lehen, Zuzendari exekutiboak Kontuen Auzitegiari igorriko dizkio bere oharrei egindako erantzunak. Erantzun hori administrazio-kontseiluari ere jakinaraziko zaio.

9. Europako Parlamentuak hala eskatuz gero, Zuzendari exekutiboak, 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduko 146. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa betez, dagokion ekitaldiko kudeaketa onartzeko prozeduraren garapen egokirako ezinbestekoa den informazioa emango dio.

10. Europako Parlamentuak, Kontseiluaren gehiengo kualifikatuak gomendatu ondoren, N + 2 urteko apirilaren 30a baino lehen onartu behar du Zuzendari exekutiboaren kudeaketa, N ekitaldiko aurrekontuaren egikaritzeari dagokionez.

14. artikulua

Administrazio-kontseiluak Agentziari aplikatu dakioken finantza-araudia onartuko du, Batzordeari galdetu ondoren. Araudi horrek egiten duen araudia Agentziaren funtzionamendurako ezinbestekoa bada soilik eta Batzordeak horretarako baimena ematen badu aldendu daiteke Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikatu dakioken Erregelamendu finantzarioa onartzen duen Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamenduaren 185. artikulua aipatzen dituen erakundeen finantza-esparrua onartzen duen Batzordearen 2002ko azaroaren 19ko 2343/2002 (EE, Euratom) Erregelamendutik [7].

15. artikulua

1. Agentziak Erkidegoko beste erakunde eta programen laguntza eskatuko du, eta batez ere, ikerketarako zentro bateratuarena, Europako Erkidegoetako estatistika-bulegoarena (Eurostat) eta ingurumenaren esparruko ikerketarako eta garapenerako Erkidegoko programen laguntza. Bereziki:

a) Ikerketarako zentro bateratuarekiko lankidetzak I. eranskineko A idatz-zatian definitutako lanei eragiten die batez ere.

b) Eurostatekin eta Europako Erkidegoetako estatistika-programarekin gauzatutako lankidetzaren ildo nagusiak I. eranskinaren B idatz-zatian ageri direnak dira.

2. Agentziak bestelako erakundeekin elkarlanean jardungo du modu aktiboan, hala nola Europako Espazio Agentziarekin, Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Antolakundearekin (ELGA), Europako kontseiluarekin, Energiaren Nazioarteko Agentziarekin, Nazio Batuen Erakundearekin eta espezializatutako bere erakundeekin, eta bereziki, Ingurumenerako Nazio Batuen Programarekin, Munduko Meteorologia Erakundearekin eta Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziarekin.

3. Guztien interesekoak diren esparruetan, Agentziak Erkidegoko kide ez diren estatuetakoa erakundeekin, bere lana egiteko lagungarri izan daitezkeen datuak, informazioa eta jakintza berezituak, datu-bilketarako metodoak, azterketak eta ebaluazioak eskaini diezazkiokeenekin, lankidetzan jardun dezake.

4. 1., 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen den lankidetzarako, kontuan izan behar da beharrezkoa ez den bikoizketa oro saihestu behar dela.

16. artikulua

Europako Erkidegoetako pribilegio eta immunitateak aplikatuko zaizkio Agentziari.

17. artikulua

401/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 126/13, 2009/5/21ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Agentziako langileek, funtzionarioek eta Europako Erkidegoetako bestelako agenteek bete beharreko arauak bete behar dituzte.

Agentziak izendapenak egiteko eskubidea ematen dion autoritatea baliatuko du bere langileekiko.

Administrazio-kontseiluak Batzordearekin batera hartuko ditu garapen-arau egokiak.

18. artikulua

1. Agentziaren kontratuzko erantzukizuna kontratuari aplika dakiokkeen legearen arabera izango da. Justizia Auzitegiak Agentziak egindako kontratuen baitako arbitraje-klausulak epaitzeko eskumena izango du.

2. Kontratuz kanpoko erantzukizunei dagokienez, Agentziak konpondu behar ditu berak edo Agentziaren agenteek beren egitekoak betetzen ari direla eragiten dituzten kalteak, estatu kideen zuzenbideari dagozkion printzipio orokorre jarraiki.

Justizia Auzitegiak izango du kalte horiek konpontzeko auziak erabakitzeko eskumena.

3. Agenteek Agentziarekiko duten erantzukizun pertsonala Agentziako langileei aplika dakizkiekeen xedapenen arabera izango da.

19. artikulua

Agentziak Erkidegokoak ez diren estatuarekin ere izango du harremana, baldin eta Agentziaren helburuei dagokienez Erkidegoak eta estatu kideek daukaten interes bera badaukate, Tratatuaren 300. artikuluari jarraiki Erkidegoaren eta estatu horien artean egindako hitzarmenak direla bide.

20. artikulua

II. eranskinean adierazitako Arauek aldatutako 1210/90/EEE Erregelamendua indargabetzen da.

Indargabetutako Erregelamenduari zuzendutako erreferentziak Erregelamendu honi egindakotzat hartuko dira, eta III. eranskineko korrespondentzia-taularen arabera interpretatuko dira.

21. artikulua

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeiei egunera jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean
Presidentea
P. Nečas

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

[1] C 162 EO, 2008.6.25ekoa, 86. or.

[2] Europako Parlamentuaren txostena, 2008ko otsailaren 19koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 23koa.

[3] L 120 EO, 1990.5.11koa, 1. or.

[4] Ikus II. eranskina.

[5] L 145 EO, 2001.5.31koa, 43. or.

[6] L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or.

[7] L 357 EO, 2002.12.31koa, 72. or.

ANEXO I

A. Cooperación con el centro común de investigación

- armonización de los métodos de medición de la situación del medio ambiente⁽¹⁾;
- calibrado cruzado de instrumentos⁽¹⁾;
- normalización de los formatos de los datos;
- creación de nuevos métodos e instrumentos de medición de la situación del medio ambiente;
- otros cometidos acordados entre el Director ejecutivo de la Agencia y el Director general del Centro Común de Investigación.

B. Cooperación con Eurostat

1. La Agencia hará uso, en la medida de lo posible, de la información recogida a través de los servicios oficiales estadísticos de la Comunidad. Esta información será la resultante de los trabajos de Eurostat y de los servicios nacionales estadísticos al recopilar, convalidar y divulgar las estadísticas sociales y económicas, incluidos los estados de cuentas nacionales y la información afín.
2. El Director ejecutivo de la Agencia y el Director general de Eurostat establecerán de común acuerdo el programa estadístico en el ámbito del medio ambiente. Dicho programa será presentado para su aprobación al consejo de administración de la Agencia y al Comité del programa estadístico.
3. El programa estadístico se elaborará y aplicará con arreglo al marco establecido por los organismos estadísticos internacionales, como son la Comisión estadística de las Naciones Unidas, la Conferencia de técnicos europeos en estadística y la OCDE.

⁽¹⁾ La cooperación en estos campos también tendrá en cuenta los trabajos realizados por el Instituto de Materiales y Medidas de Referencia del Centro Común de Investigaciones.

ANEXO II

Reglamento derogado con la lista de sus modificaciones sucesivas*(contemplado en el artículo 20)*

Reglamento (CEE) n° 1210/90 del Consejo	(DO L 120 de 11.1990, p. 1).
Reglamento (CE) n° 933/1999 del Consejo	(DO L 117 de 5.5.1999, p. 1).
Reglamento (CE) n° 1641/2003 del Parlamento Europeo y del Consejo	(DO L 245 de 29.9.2003, p. 1).

ANEXO III

TABLA DE CORRESPONDENCIAS

Reglamento (CEE) N° 1210/90	Presente Reglamento
Artículo 1, apartado 1	Artículo 1, apartado 1
Artículo 1, apartado 2, frase introductoria	Artículo 1, apartado 2, frase introductoria
Artículo 1, apartado 2, primer guión	Artículo 1, apartado 2, letra a)
Artículo 1, apartado 2, segundo guión	Artículo 1, apartado 2, letra b)
Artículo 2, frase introductoria	Artículo 2, frase introductoria
Artículo 2, inciso i)	Artículo 2, letra a)
Artículo 2, inciso ii), primer guión	Artículo 2, letra b)
Artículo 2, inciso ii), segundo guión	Artículo 2, letra c)
Artículo 2, inciso ii), tercer guión	Artículo 2, letra d)
Artículo 2, inciso iii)	Artículo 2, letra e)
Artículo 2, inciso iv)	Artículo 2, letra f)
Artículo 2, inciso v)	Artículo 2, letra g)
Artículo 2, inciso vi)	Artículo 2, letra h)
Artículo 2, inciso vii)	Artículo 2, letra i)
Artículo 2, inciso viii)	Artículo 2, letra j)
Artículo 2, inciso ix)	Artículo 2, letra k)
Artículo 2, inciso x)	Artículo 2, letra l)
Artículo 2, inciso xi)	Artículo 2, letra m)
Artículo 2, inciso xii)	Artículo 2, letra n)
Artículo 2, inciso xiii)	Artículo 2, letra o)
Artículo 3, apartado 1, frase introductoria	Artículo 3, apartado 1, frase introductoria
Artículo 3, apartado 1, inciso i)	Artículo 3, apartado 1, letra a)
Artículo 3, apartado 1, inciso ii)	Artículo 3, apartado 1, letra b)
Artículo 3, apartado 1, inciso iii)	Artículo 3, apartado 1, letra c)
Artículo 3, apartado 1, frase final	Artículo 3, apartado 1, frase final
Artículo 3, apartado 2, párrafo primero	Artículo 3, apartado 2, párrafo primero
Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, frase introductoria	Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, frase introductoria
Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, primer guión	Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, letra a)
Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, segundo guión	Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, letra b)
Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, tercer guión	Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, letra c)
Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, cuarto guión	Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, letra d)
Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, quinto guión	Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, letra e)
Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, sexto guión	Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, letra f)
Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, séptimo guión	Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, letra g)
Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, octavo guión	Artículo 3, apartado 2, párrafo segundo, letra h)
Artículo 3, apartado 2, párrafo tercero	Artículo 3, apartado 2, párrafo tercero
Artículo 3, apartado 2, párrafo cuarto	Artículo 3, apartado 2, párrafo cuarto
Artículo 3, apartado 3	Artículo 3, apartado 3
Artículo 4, apartado 1, frase introductoria	Artículo 4, apartado 1, frase introductoria
Artículo 4, apartado 1, primer guión	Artículo 4, apartado 1, letra a)
Artículo 4, apartado 1, segundo guión	Artículo 4, apartado 1, letra b)
Artículo 4, apartado 1, tercer guión	Artículo 4, apartado 1, letra c)

Reglamento (CEE) N° 1210/90	Presente Reglamento
Artículo 4, apartado 2, párrafo primero, desde «con» hasta «medio ambiente»	—
Artículo 4, apartado 2, párrafo primero, desde «en particular» hasta «territorio»	Artículo 4, apartado 2, párrafo primero, frase final
Artículo 4, apartado 2, párrafo segundo	Artículo 4, apartado 2, párrafos primero, segundo y tercero
Artículo 4, apartado 3	Artículo 4, apartado 3
Artículo 4, apartado 4	Artículo 4, apartado 4, párrafos primero, segundo y tercero
Artículo 4, apartado 5, párrafo primero	—
Artículo 4, apartado 5, párrafo segundo	Artículo 4, apartado 5
Artículo 4, apartados 6 y 7	Artículo 4, apartados 6 y 7
Artículo 5	Artículo 5, párrafos primero y segundo
Artículo 6, apartado 1	Artículo 6, apartado 1
Artículo 6, apartado 2	—
Artículo 6, apartado 3	Artículo 6, apartado 2
Artículos 7 y 8	Artículos 7 y 8
Artículo 9, apartado 1, párrafo primero, primera frase	Artículo 9, apartado 1, párrafo primero
Artículo 9, apartado 1, párrafo primero, segunda frase	Artículo 9, apartado 1, párrafo segundo
Artículo 9, apartado 1, párrafo primero, frase introductoria	Artículo 9, apartado 1, párrafo tercero, frase introductoria
Artículo 9, apartado 1, párrafo primero, primer guión	Artículo 9, apartado 1, párrafo tercero, letra a)
Artículo 9, apartado 1, párrafo primero, segundo guión	Artículo 9, apartado 1, párrafo tercero, letra b)
Artículo 9, apartado 1, párrafo primero, tercer guión	Artículo 9, apartado 1, párrafo tercero, letra c)
Artículo 9, apartado 1, párrafo primero, cuarto guión	Artículo 9, apartado 1, párrafo tercero, letra d)
Artículo 9, apartado 1, párrafo primero, quinto guión	Artículo 9, apartado 1, párrafo tercero, letra e)
Artículo 9, apartado 1, párrafo segundo	Artículo 9, apartado 1, párrafo cuarto
Artículo 9, apartado 2	Artículo 9, apartado 2
Artículo 10	Artículo 10
Artículo 11	Artículo 11
Artículo 12	Artículo 12
Artículo 13	Artículo 13
Artículo 14	Artículo 14
Artículo 15, apartado 1, frase introductoria	Artículo 15, apartado 1, frase introductoria
Artículo 15, apartado 1, primer guión	Artículo 15, apartado 1, letra a)
Artículo 15, apartado 1, segundo guión	Artículo 15, apartado 1, letra b)
Artículo 15, apartado 2	Artículo 15, apartado 2
Artículo 15, apartado 2 bis	Artículo 15, apartado 3
Artículo 15, apartado 3	Artículo 15, apartado 4
Artículo 16	Artículo 16
Artículo 17	Artículo 17
Artículo 18	Artículo 18
Artículo 19	Artículo 19
Artículo 20	—
—	Artículo 20
Artículo 21	Artículo 21
Anexo	Anexo I
—	Anexo II
—	Anexo III